

UNESCO Etxea - Euskaltzaindia

Bilbo, 2009-06-23

Ekainaren 23an, UNESCO Etxeak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten, Bilbon. Hitzarmen horrek, euskara, euskal kultura eta, oro har, munduko hizkuntza-ondarearen egoera ikertzeko, irakasteko eta zabaltzeko ekimenak gauzatzea du helburu. Biak elkarlanean arituko dira, bereziki euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko eta Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak zabaltzeko.

UNESCO Etxearen izenean Ruper Ormaza lehendakariak sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak.

**UNESCO ETXEAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA**


Bilbon, 2009ko ekainaren 23an

BILDURIK


Alde batetik, Ruperto Ormaza Larrozea jauna, UNESCO ETXEAREN izen eta ordezkartzan, eta, beste aldetik, Andres Urrutia Badiola jauna, Euskaltzaindiaren izen eta ordezkartzan.

AZALTZEN DUTE

Euskaltzaindia 1918. urtean sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Erakunde horren helburu nagusia da, hain zuzen ere, euskararekin zerikusia duten arazo guztiak zientziaren ikusmiratik lantzea.



Otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak aitorten ofiziala egin zion erakunde horri, Euskararen Errege Akademia gisa; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Euskara Legeak beren beregi aitortu dute Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionez.



UNESCO ETXEAREN helburu nagusietako bat munduko eta Euskal Herriko hizkuntza eta kultur aniztasunaren ondarearen zaintzan laguntzea da, ikerketaren eta sentsibilizazioaren bitartez. Ildo horretan UPV/EHUREN **Munduko Hizkuntzen Ondarearen UNESCO Katedraren** bultzatzailea da eta helburu horiekin bat egiten du nazioarteko elkar lan akademiko eta instituzionalaren bitartez. Arreta berezia jartzen da, hain zuzen, hizkuntza gutxituen inguruan lan egiten duten erkidego eta instituzioekin harrémanak sustatzeko eta elkarlan horren oihartzuna gure inguruan indartzeko.

Ildo horretan -eta euskarari dagokionean-, UNESCO ETXEAREN eta UNESCO KATEDRAREN helburua, euskararen presentzia nazioartean ziurtatzea da, eta normalizazio arloan gure hizkuntzak duen esperientzia kontuan hartuz, beste

egoera linguistikoetan dauden erkidegoentzat eredugarri edo lagungarri izan daitekeen eskarmentua eskaintzea.

Gaur egun, Euskaltzaindiak eta UNESCO ETXEAK hainbat jarduera burutzen dituzte, eta jarduerok oso interesgarri gerta daitezke hitzarmen honen ondorioetarako,

HITZARTZEN DUTE

Bi erakunde horiek euron helburuak bete ditzaten, eta euskara, euskal kultura eta, oro har, munduko hizkuntza-ondarearen egoera ikertu, irakatsi eta zabaltzeko ekimenak errentagarri eta egoki izan daitezen, bi erakundeok, bataren eta bestearen prozedura-arauak onartuz, honako hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, hurrengo baldintzokin:

1. UNESCO ETXEAK aitortu egiten du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala.

2. UNESCO ETXEAK eta Euskaltzaindiak elkarri aitortzen diote euskararen eta, oro har, munduko hizkuntza-ondarearen ikerguneak izatea. Horregatik, bi erakundeok lankidetzaproiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte, euskarari, euskal kulturari eta, oro har, munduko hizkuntza-ondareari buruzko irakaskuntza, ikerketa eta pedagogiaren eremuan; bi-bioi dagozkien lerro bereziak sustatuko dituzte, eta elkarri informazioa emango diote euren programazioetan zehaztutako lehentasunei buruz.

Horren harira, curriculumaren ondorioetako eta meritu gisa, UNESCO ETXEAK kontuan hartuko du bere ikertzaileek Euskaltzaindiaren barruan egindako lana. Ikertzaileok lan hori egin dezakete, dela Euskaltzaindiaren batzordeetan parte hartuz, dela Euskaltzaindiak antolatutako biltzar nahiz jardunaldi zientifikoetan parte hartuz, dela hitzarmen honen itzalpean bi erakundeok sinatzen dituzten lankidetzaproiektu zehaztutako parte hartuz.

Dena dela, UNESCO ETXEAREN ikertzaileek parte hartzen badute edo lankidetzan badihardute Euskaltzaindiak antolatutako jardueretan, parte-hartze edo lankidetzaproiektu horiek curriculumaren ondorioetarako aintzat hartzeko, beharrezko diren baliokidetasun-koefizienteak ezarriko dira.


3. UNESCO ETXEAK eta Euskaltzaindiak elkarri euren ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera. Gainera, gero aipatuko den Jarraipen

Batzordearen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira, bi sinatzaileek euren artean argitalpenak truka ditzaten.

4. Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, bereziki, euskara, euskal kultura eta, oro har, munduko hizkuntza-ondarearen egoera ikertu, irakatsi eta zabaltzeko, eta Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak euren barnean zabaltzeko. Era berean, UNESCO ETXEAK zabalduko ditu, bi sinatzaileek jarritako baldintzetan, arau horien punturik nabarmenenak eta aldian-aldian ere, Euskaltzaindiak hala eskatuta, bidaliko dizkio Euskaltzaindiari arau eta gomendioen gaineko txostenak, gero ezarriko den Jarraipen Batzordeak adosturiko moduan eta baldintzetan.

Bereziki, Euskaltzaindiak erantzuna emango die UNESCO ETXEAK egindako kontsultei, kontsultok euskal lexikoari, gramatikari, toponimiari, onomastikari, ortografiari eta, oro har, euskararen araugintzaren bestelako gaiei buruzkoak direnean. Horretarako, gero aipatuko den Jarraipen Batzordearen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira.

Edozein kasutan ere, kontsulta horiek bideratzeko orduan, bi erakundeek Euskaltzaindiaren JAGONET zerbitzua erabiltzea sustatuko dute, Jarraipen Batzordeak zehaztutako prozeduraren arabera.



5. Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira, euskara, euskal kultura eta, oro har, munduko hizkuntza-ondarearen egoera ikertu, irakatsi eta zabaltzeko arloan.

6. Lan batzuk, argitaratu ez arren, ikerketarako interesgarriak izan badaitezke, esaterako, tesiak, monografiak nahiz bestelako lanak, orduan lan horiek elkarren eskura jarriko dira, betiere egileen eskubidea errespetatuz eta egileen baimena lorturik.



7. Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, euren biblioteketako euskal funtsak sendotzeko; horretarako, euron argitalpen funtsetatik, zenbait lan ekarriko dituzte.

8. Bi erakunde horiek lankidetzako politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezen, euskara, euskal kultura eta, oro har, munduko hizkuntza-ondareari dagozkien eremuetan.

9. Aipatutako helburuok betetzeko, UNESCO ETXEak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea sortuko dute; batzorde horrek lau kide izango ditu, eta Hitzarmen hau sinatzen duen erakunde bakoitzak horietatik bi hautatuko ditu. Hautatutako kideen artean, UNESCO ETXEaren lehendakariak eta Euskaltzainburuak arduradun bana izendatuko dute, arduradunok koordinazio-harremanen gaineko erantzukizuna izan dezaten. Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez.

Jarraipen Batzordeak urtero-urtero eranskin egokia idatziko du, eta bertan zehaztuko du bi erakunde horientzat zeintzuk izan daitezkeen ikerketa-proiektu, baterako argitalpen edo bestelako lan interesgarriak, zein izango den aurrekontu-zuzkidura, bai eta proiektu horien gainerako inguruabarrak ere.

10. Hitzarmen honek hiru urteko iraupena izango du; baina iraupen bereko eta ondoz ondoko epealdietan luza daiteke, baldin eta erakunde sinatzaileetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarreko hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago.

Nolanahi ere, hitzarmen honen bidezko informazio, material eta gainerakoen trukaketa egingo da beti jabetza intelektualaren baldintzak gordez eta merkataritza ustiaketarik gabe, elkarrekin trukaturakoa hirugarren bati emateko bi sinatzaileen baimena beharrezkoa delarik.

11. UNESCO ETXEak eta Euskaltzaindiak beren-beregi aitortzen dute UNESCO ETXEaren barruan lanean ari den Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra. Orobat, konpromisoa hartzen dute, katedra hori kontuan hartuta, euskara, euskal kultura eta, oro har, munduko hizkuntza-ondarearen egoera ikertu, irakatsi eta zabaltzeko, hainbat egitasmoren bitartez. Urtean-urtean zehaztuko dira, hitzarmen honen protokolo gisa, egitasmo horiek.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, eta behean sinatzen dutenak horrekin ados daudenez gero, goian aipatutako toki eta egunean sinatu egiten dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzan dituzten erakundeen izenean.

The image shows two handwritten signatures in black ink, enclosed within a thin black rectangular border. The signature on the left is more compact and stylized, while the one on the right is longer and more fluid, extending towards the right edge of the box.